

Euskara Proba

Irakurriaren ulermena

DBH 4

Bigarren zatia

237

2005

a d i b i d e a k**Dragoiak maite zituen jauna**

Ye jaunak biziki maite zituen dragoiak; gela guztietan zeuzkan eskulturetan edo pintaturik. Zeruko benetako dragoia enteratu zenean, lurrera jaitsi eta burua sartu zuen Ye jaunaren etxeko atetik eta buztana leiho batetik. Ye jaunak dragoia ikustean, erabat izuturik alde egin zuen eta ia-ia zoraturik bukatu zuen.

Izan ere, Ye jaunak ez zituen hainbeste maite dragoiak. Dragoi itxurakoa zuen gogoko, baina inola ere ez dragoia bera.

Txinako ipuin bat

1. Zer zuen gela guztietan Ye jaunak?

- A) Zerutik jaitsitako dragoiak
- B) Benetako dragoiak
- C) Dragoiak eskulturetan edo pintaturik
- D) Txinako dragoiak

2. Zein da testuaren mamia?

ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN

239

j a r r a i b i d e a k

- * Orain irakurri eta erantzungo dituzu horrelako galdera gehiago.
- * Ez idatzi ezer koadernotxo honetan.
- * Erantzun orrian marka ezazu erantzun zuzenari dagokion hizkia.
- * Galdera irekietan, erantzun ahalik eta hobekien idazteko eman zaizun orrian.
- * Egin lana ahalik eta lasterren.
- * Saia zaitetz galdera guztiei erantzuten.
- * Orrialde bakoitza bukatutakoan, hurrengora pasa koadernotxoa amaitu arte.
- * Okertzen bazara, erantzun hori ezaba dezakezu eta zure ustez zuzena den erantzuna marka dezakezu.

EZ ZAITEZ HURRENGO ORRIALDERA PASA PROBA AZALTZEN ARI ZAIZUN PERTSONAK HORRETARAKO BAIMENA EMAN ARTE ETA BETE ITZAZU BERE AGINDUAK.

Hegaztien gripea, pandemiaren arriskua

Zientzialari askok diote ez dutela gizartea larritu nahi, baina onartzen dute pandemia bat jasateko arriskuan gaudela. Hegaztien gripe edo oilaskoaren gripe esaten diogun gaitzarekin kezkatuta dabil Munduko Osasun Erakundea (MOE): hegaztietan soilik azaltzen zen birusa gizakietara heldu da, eta Asian 50 pertsonatik gora hil dira. MOEren eta beste zientzialari batzuen aburuz, birus hori mutaturaz, gizakien artean zabal liteke, eta pandemia bati hasiera eman.



Thailandiako ahate-granja bat. Ahateak eta hegazti basatiak ez nahasteko sareak jarri dituzte granjetan

Oraindik ez dira hamar urte pasatu hegaztien gripeak lehenengo gizakiak kutsatu zituenetik. 1997an, Influenza A taldeko H5N1 birusak 6 lagun hil zituen Hong Kongen –18 pertsona gaixotu ziren guztira–. Geroagoko ikerketek argi eta garbi utzi zuten gaixotasun berri haren sorburua granjetan hazitako hegazti kutsatuekin izandako harreman estua zela. Lehen aldiz baieztatu zen, beraz, hegaztien gripeak gizakietara salto egin zezakeela.

Batez ere granjetan hazitako hegaztiekin (oilaskoak, oilarrak, indioilarrak) noztzen eta kutsatzen dute H5N1 birusa, eta munduko laborategi garrantzitsuenak jo eta ke ari dira birusa isolatu eta haren egitura aztertzen eta baieztatu dute birusaren hainbat aldaera daudela.

Zoritxarrez, azken hilabete hauetan hegaztien gripea albiste bilakatu da berriro, arrisku larriago baten aurrean egon gaitezkeelako. Izan ere, Vietnamen iparraldean egindako ikerketa epidemiologikoek aditzera eman dutenez, H5N1 birusa aldatzen ari da.

Gainera, pasa den maiatzean, hainbat hegazti basati eta migratzaile hilda aurkitu zituzten Txinan. Zenbait adituk dionenez, hegazti basatiekin inoiz jasan duten gripe hilgarrienaren aurrean egon gaitezke, eta, birusaren mutazioek eragin ditzaketan ondorioak zein diren kontuan izanik, mundu osoko zientzialariak oso kezkatuta dabilza.



Animalien Osasunerako Thaiandiako Institutoko teknikariak hegaztien laginak aztertzen. Goian, H5N1 birusa.

Mutazioaren arriskua

Izan ere, A taldeko gripe-birusak oso aldakorrak dira, gaixoen defentsak aise saihesten dituzte, eta, animalia batetik bestera (edo pertsona batetik bestera) transmititzen diren heinean, birusen egitura genetikoa aldatuz joaten da.

Aldaketa horiek direla eta, gerta daiteke oilaskoei bakarrik eragiten zien birusak beste zenbait animalia-espezie kutsatzea, besteak beste katuak, txerriak eta hegazti migratzaileak. Azken horien bidez, benetako arriskua dago birusa beste herrialde batzuetara iritsi eta hango biztanleria kutsatzeko. Hain justu, hegazti migratzaileen erruz dago orain gaitza Europaren mendebaldera zabaltzeko arrisku bizia.

Gaixotasuna hedatzeko arriskua zenbatekoa den, birusaren birulentziaren menpe dago. Eta, nahiz eta paradoxa iruditu, hiltzeko zenbat eta gaitasun handiagoa



izan birusak, orduan eta txikiagoa da hedatzeko arriskua, gaitzak helmugara iritsi aurretik hilko baititu hegazti migratzaileak.

Orain arte aipatutako beldurrak egia bihurtu ziren joan den uztailaren 17an Indonesiako gobernuak emandako berrien arabera. Pertsona heldu bat eta haren bi alabak (urtebetekoa bat eta bederatzikoa bestea) pneumoniaz hil ziren hegaztien gripearen ondorioz. Hildakoek ez zuten oilaskoekin kontakturik izan, eta, beraz, beste agente kutsakor batek transmititu zien birusa; txerriak, zenbaiten ustez. Familia horrena izan daiteke birusa pertsona batetik bestera transmititu den lehenengo kasu ezaguna.

Gripearen kontra

Hegaztien gripearen kontrako neurriak MOEk koordinatzen ditu –gaur egun, 50 herrialdek baino gutxiagok antolatu dute birusaren kontrako plangintza–. Neurri fisikoak hartu dira: batetik, birusaren jatorrizko lurraldeetan abereak hil dira, eta, bestetik, salerosketak mugatu dira.

Granjetako abereak sakrifikatzeaz gain, animaliak txertatu egin dira. Bestalde, H5N1 birusetik “hurbil” egon daitezkeen pertsonen gripearen kontrako txertoa

hartzeko gomendatu die MOEk, giza gripeareen birusaren eta hegaztienaren arteko material genetikoaren trukea saihesteko. Prebentzio gisara, botika antibiralak gomendatzen dira. Botika horiek hartu behar dituzte, esaterako, granjetako hegaztien gorotzak deuseztatzen dituzten langileek, eta jantzi eta ekipo bereziak erabili.

Pandemiaren faseak munduko osasun erakundearen (MOE) arabera

- | | |
|-----------------|--|
| 1. fasea | Gizakietan ez dago gripe-birusik. Animalietan birus kutsakor bat egon daiteke, baina kutsatzeko arriskua txikia da. |
| 2. fasea | Gizakietan ez dago gripe-birusik. Animalietan gizakia kutsa dezakeen birus bat detektatzen da. |
| 3. fasea | Gizakietan infekzioa dago. Ez da kutsatzen pertsona batetik bestera, edo behintzat, kasu bakanak daude. |
| 4. fasea | Gizakietan infekzioa dago. Pertsona batetik bestera kutsatzen da, baina kasu jakin batzuetan bakarrik. |
| 5. fasea | Gizaki asko dago infektatuta, baina pertsona batetik besterako kutsadura mugatua da oraindik. Birusa gero eta hobeto moldatzen da gizakietara. |
| 6. fasea | Biztanleria osoan zabaltzen da kutsadura. |

Iker Armentia (kazetaria) / **Gorka Orive Arroyo** (farmazian doktorea)
Elhuyar aldizkaria, 213. alea. Egokitua.

1. Zergatik dago kezkatuta MOE erakundea?

- A) Oilaskoaren gripeak munduan familia asko ogibiderik gabe utziko dituelako
- B) Asian Mundu Gerra berri bat has daitekeelako
- C) Hegaztietan soilik agertzen zen birusa gizakietara heldu delako
- D) Zientzialariek pandemia bat sor dezaketelako

2. Lehen aldiz Asian agertutako gaixotasun berri honek non du bere sorburua?

- A) Granjetan gizakiek hegazti kutsatuekin izandako harremanetan
- B) Kalean dauden neurririk gabeko azoketan
- C) Laborategietan
- D) Hegazti basati eta migratzaileetan

3. Laborategiak birusa isolatu nahian dabilta; baina azken hilabeteotan gauzak okertu al dira?

- A) Ez, gauzak lehen moduan daude
- B) Bai, Europa osoan zabaltzen hasi delako
- C) Bai, birusa aldatzen ari delako
- D) Ez, zenbait txerto aurkitu dituztelako

4. Datuek diotenez, Thailandia da, oraingoz, hildako gehien izan duen herrialdea

- A) Okerra, gehiengoak Kanputxean daude
- B) Zuzena, oraingoz 20 hildako zenbatu dira
- C) Okerra, Txinan izan da hildako gehien
- D) Okerra, Vietnamen izan da hildako gehien

5. Dena den, zientzialari guztiak pozik daude gobernu guztiak jarrera ona agertu dutelako

- A) Bai, hala da
- B) Gezurra, Txinako gobernuak, adibidez, datuak ezkutatu ditu
- C) Gezurra, Asiako estatu gehienetan datuak ezkutatu dira
- D) Honelako daturik ez dago

6. Zer dela eta zabal daiteke gaitza Europara?

- A) Asiako etorkin asko dagoelako
- B) Europar asko turismoa egitera Asiarara joaten delako
- C) Gaur egun Asiatik, Txinatik batez ere, oilasko asko ekartzen delako
- D) Hegazti migratzaileek ekar dezaketelako

7. Gaixotasunak zenbat eta hiltzeko gaitasun handiagoa izan, hainbat eta gutxiago heda daiteke

- A) Okerra, hain zuzen ere kontrakoa izango litzateke baieztapen zuzena
- B) Ez dago honelako baieztapenik
- C) Zuzena da, gaitzak helmugara iritsi aurretik hilko dituelako hegaztiak
- D) Ez dago jakiterik

243

8. MOEren ustez, noiz gertatzen da pandemia bat?

- A) Gaixotasuna animalia guztietan zabaltzen denean
- B) Kutsadura biztanleria osoan zabaltzen denean
- C) Hildakoak daudenean
- D) Epidemia pasatzen denean

9. Testuak ba al du ikuspegi subjektiborik?

- A) Bai, igorleak bere iritzia ematen duenean
- B) Bai, zientzialarien iritzia lehen pertsonan alpatzean
- C) Ez, objektiboa da
- D) Bai noski, testu osoa da subjektiboa

10. Testuan ematen den informazioa kontuan hartuta, zenbatgarren fasean aurkitzen da gaixotasuna? Eman itzazu bi arrazoi.

ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN

11. Egin ezazu testuaren eskema

ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN

CLAUDE COHENTANNOUJJI - ALBERTO GALINDO - RAFAEL REBOLO - AMAND A. LUCAS - FERNANDO FLORES
 - HEINRICH ROHRER - JEAN MARIE LEHN - DUDLEY HERSCHBACH - IGNACIO CIRAC -



Albert Einstein Annus Mirabilis 2005
 Donostia
 2005eko irailaren Setik 8ra
www.dipc-einstein05.org

Mundua aldatu zuten bost lanen mendeurrenari buruzko batzarra

KONTSULTATU WEBGUNEAN
 PROGRAMARI, DOAKO IZEN-EMATEARI ETA BEKET BURUZKO INFORMAZIOA
 EDO DEITU 943-425420 TELEFONO-ZENBAKIRA
 Izena emateko epea: maiatzak 31

Donostia International Physics Center



FRANCISCO I. YNDURAIN - SHELDON GLASHOW - ANTONY HEWISH - ANTONY ZEILINGER - PEDRO PASCUAL - CLIFFORD M. WILL -

244

12. Zein da iragarki honen asmoa?

- A) Albert Einsteinek mundua aldatu zuela zabaltzea
- B) Webgune horretan begiratu behar dela esateko
- C) Donostia internazionala dela adierazteko
- D) Donostian ospatuko den batzarra adieraztea

13. Zein da iragarki honen igorlea?

- A) Donostia International Physics Center
- B) Albert Einstein Fundazioa
- C) Kutxa, CSIC...
- D) Donostiako udala

14. Zein da hartzailea?

- A) Donostiarrak
- B) Unibertsitateko ikasle guztiak
- C) Donostiako Unibertsitateko Fisika ikasleak
- D) Zientzia arloko adituak edo horretan interesatuak

15. Iragarkiaren inguru guztian agertzen diren adituen izenek

- A) Iragarkia apaintzen dute
- B) Antolatzailleen izenak dira
- C) Batzarrari prestigioa ematen diote
- D) Irudi geometriko bat osatzen laguntzen dute

16. Iragarkiaren azpian agertzen diren anagramak...

- A) Unibertsitateko fakultateak dira
- B) Kolaboratzaileen ikurrak dira
- C) Gonbidatuak dira
- D) Elkarte zientifikoak dira

Maitasunez hil

1 Hamahiru urte nituanean, oraindik galtza motxetan,
bere atzetik ibiltzen nintzen herriko kale hotzetan
printzesa hura behar bezela kortejatzeko lotsetan,
bere etxera lagundu nahirik eskolatik arratsetan.

5 Oh, ez, esaten zuen, oraindik ez, gaztea naiz.
Oh, ez inñolaz ez, etxera joan behar dut garaiz.

Hemezortzira aillegatuta erromantizismoz beterik
etzan posible eromen hura bazter batera uzterik,
aingeru harek ez zidan sortzen sufrimentua besterik,
10 sekulan ere ez nuen lortu bi besoetan hartzerik.

Oh, ez, esaten zidan, maitemintzeko gaztea naiz.
Oh, ez, oraindik ez, lotsa ematen dit ta ez dut nahi.

Lotsaren lotsez pasa ta gero dozenerdi bat eskutik
pentsatu zuen komeni zela sartzea bide estutik,
15 eta nik nola oraindik ere jarraitzen nuen gertutik
ezkondutzia eskatu nion, ez bazitzaion inportik.

Oh, ez, erantzun zidan, aspertzen nauzu, zoaz apaiz.
Oh, ez, inñolaz ez, beste batekin ezkontzen naiz.

Festa batean ikusi nuen handik zortzi bat urtera
20 ta hotz-hotzean ausartu nintzen sagar helduen hartzera,
irrifar doble makur batekin izkutatu zen atzera:
ez zen ausartzen bere zezena adarrez adornatzera.

Oh, ez, ez da posible horrelakorik ez nuke nahi.
Oh, ez, inñolaz ez, ni etxeoandre jator bat naiz.

25 Mutilzartuta bizi nintzela laugarren piso batian
behin uste gabe topatu nuen gure etxeo atian...
bere onenak gastatutako alarguna zen artian,
eta honela erantzun zidan oraingo bion kaltian.

Oh, ez, orain ia ez, nahiz eta zutaz pentsatu maiz.
30 Oh, ez inñolaz ez, oheratzeko zahartu naiz.

Xabier Lete

17. Zein da "Maitasunez hil" poeman poetak darabilen gaia?

- A) Maitasun lortezina
- B) Maitasuna hamahiru eta hemezortzi urterekin
- C) Maitasunaren edertasuna
- D) Heriotza

18. Zein da poema honetan kontatzen den istorioa?

- A) Maiteminduta dagoen mutil gazte baten bizitza, eta maitasun horrek heriotzera nola eramán duen.
- B) Gaztetatik maitemindua dagoen gazte baten bizitza, eta maite duen neskak, behin eta berriro nola berarekin ez duen harremanik izan nahi.
- C) Neska gazte baten bizitza, eta bere bizitzan izan dituen harreman sentimentalak.
- D) Bi gazteren maitasun istoria kontatzen du, gaizki amaitzen den maitasun istorioa, neska, azkenean beste batekin ezkontzen baita.

19. Zer gertatzen da poetarekin azkenean?

- A) Neskarekin ezkontzen da
- B) Ezkondu eta gero alargun gelditzen da
- C) Ezkutatu egiten da
- D) Ezkongabe bizi da

20. "Maitasunez hil" poemako edukia kontuan hartuta, zenbat zatitan banatuko zenuke poesia hau? Zer irizpide erabili duzu hori erabakitzeke?

247

ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN
